



Aberri Eguna 2024

Martxoak 31. Bilbao.
Plaza Barria. 11:30

BEATRIZ BERLANGA

ABERRI EGUNA 2024

Balioa izango duen diskurtso bakarra hizlariak bertan eskainiko duena izango da.

El único discurso válido será el pronunciado por el orador o la oradora en el acto.

Egun on Bilbo! Egun on Euzkadi!

Euzko Gaztediko gazteok argi daukagu: gure aberri bakarra Euzkadi da eta abertzale garen heinean, Euzkadiren askatasuna da gure helburua. Emakume eta gizon askeez osatutako Euzkadi. Hau da gure oinarrizko printzipioa.

XXI. mendearekin batera jaio ginen egungo gazteok. Euzkadi moderno batean jaio ginen. Hoberantz joan den Euzkadi batean hazi eta gazteoi aukerak ematen dizkigun herri batean hezi gara. Biarritzetik Laguardiara edo Irunetik Ortuellara, berdin dio non. Gure jatorriaz harro gaude, gure Aberriaren eraikuntzaren parte sentitzen gara eta badakigu nora goazen. Baina, lanean eta borrokan jarraitu behar dogu, oraindik arduratzen gaituzten gai asko ditugulako aurretik. Baina, inkonformismotik, erronka guzti horiei erantzuna emateko gai izango gara. Formakuntza, lan baldintzak, berdintasuna, emantzipazioa, soldata duinak, kontziliazioa, emakumeen kontrako indarkeriaren desagertaraztea, gure ingurumena zaintzea... eta beste hainbat. Bagabiz; batzuetan nahiko genukeena baino mantsoago, baina bagoaz aurrera. Eta gu, euskal gazteria, irtenbide horiek guztiak aurkitzeko bermea gara. Etorkizuna garelako! Euzkadiko gaztedi indarberritua garelako!

Eta zelan jarraituko dogu Euzkadi libre hori eraikitzen? Gure estiloan, gure modeloa aldarrikatuz. Batzuk, kaleen jabe direla pentsatzen daben horiek, benetako gazteria direla dioten horiek... hormak zikitzen eraikitzen dabe bere Euzkadi. Eta gu, bitartean, ABERRIGINTZAN eta HERRIGINTZAN. Elkarreetan parte hartuz, elkarlanean edo gure herrietako eguneroko politikan aktiboki parte hartzen, alderdi honen katebegi izatearen erantzukizunaz jabetzen garelako.

Apiriletik aurrera, aberri honen timoia hartuko duen belaunaldi berri baten gidaritzapean, Euzkadi hobe bat eraikitzen jarraituko dogu. Horregatik da ain garrantzitsua apirilaren 21ean hautestontziak indar berriez betetzea Imanol Lehendakaritzara eramateko, konplexurik gabe eta ilusioz. Imanolek badaki lana, erantzukizuna eta konpromisoa zer den. Eta badaki ere Aberria egunero hazi arazten dela; baina hau garatzea guztion erantzukizuna da.

Orain arte asko egin dugu. Harro egoteko moduko ondarea dugu; eta oso harro gaude. Agirre Lehendakaritik, Urkullu Lehendakarira; Sabino Aranatik, Andoni Ortuzarrera, eta bidelagun izan dituzten emakume eta gizon guztiak. Momentu bakoitzean, egiteko era zehatz bati heldu diote. Eta orain, aro itxaropentsu bati heltzeko prest, hemen gaude Euzkadi Berria eraikitzeko indar berriak!! Hemen dago Euzko Gaztedi. Herri hau eraldatuko dogu, etorkizunerantz goaz, Euzkadi aske baten bila goaz!!

Gora Euzkadi Askatuta!